

## IRA-rekin elkarrizketa

# «ARMAK UTZIKO DITUGUNEAN, IRLANDA BAT BAKARRA IZANGO DA»



Urte honen hasieran An Phobacht Irlandako errepublikar astekariak elkarrizketa bat zekarren IRA-ko lagun batekin. ARGIA-rako interesgarrien iruditu zaizkigun parrafoetarik batzu itzuli dizkizugu.

**AN PHOBACHT.**— Zertan dago zuen oraingo borroka armatua?

IRA.— Nagusiki iparraldea okupaturik duten indarren kontra segitzen dugu. Horiek inoiz baino hobeto prestaturik daude, munduan kontra-insurjentzia lan hauetan hobekien paratutako armada izango da, baina oraindik bai soldatuak eta bai paisanozko RUC eta UDR ere bulnerableak dira, bideetan minak jarrita edo-ta inguratu eta tiroa emanda ere akabatzen segituko dugu bai, oraingo urte honetan eta garaitu arte noski. Zerbait erakutsi genuen armada boteretsu horri kalte egin geniezaiokeela. 83.eko azken hilabetetako ekintzez, Derry-n, Newry-n, Carrickmore-n, Belfast-eko politeknikoan eta bestetan. Ekintza guzti horiek zenbait pertsonalitatek IRA-ren amaiaz hitz egin eta gero gertatu dira, uda lehenean Official Unionisten buruak, James Molyneaux-ek, 12 hilabetetarako bizitza genuela aldarrikatu zuen, abuztuan beste batek «pikotan» geundela zihurtatu zuen... Herri-armada bat izanik gurea, ez dugu horrela bukatzerik, zapalkuntza dagoen bitartean geu ere egon egingo gara, britainiarren indarrek alde egin arte.

**A.P.**— Britainiarren eta horien komentarioak zeragatik izan ziren. 83.ean barrena atxiloteta asko gertatu zelako, nonbait pagatutako salariairetan lanaz (hemengo «damutu»ei han ematen zaien izena). Zertan minatu du horrek errepublikarren morala?

IRA.— Lehenik esan behar da, herrialako salataririk betidanik egon da-

la, eta oraingo estiloan egitea ere, ideia aski zaharra duzu. Britainiarrek nahi zutena, lekuko zenbaiten salaketarekin jendea kondenatzea zen, eta lekuko horiek beren bidearen okerra errekonozitzen bazuten, jakina, sekulako propaganda-ta montatzea horren in-guruan.

Halabaina, gure ekintzen presioaz eta seguru aski Sinn Fein-en hauteskunde arrakastaz, RUC-ekoe (1) galdu dute pazientzia, hasi dira berriz masiboki detenitzen jendea, bai salata-ri izateko pagatuak edo mehatxat-ua izan zirenetarikoak ere...

«Terrorista damutu»aren figuraren sinisgarritasuna gain-behera dator, batez ere McGurk, Skelly, Robert Lean eta bestek atzera RUC-ek haiei buruz botatakoak gezurrezkoak direla esan dutelarik. Hasierako nahasteak bai konfunditu zuen zerbait jendea, orain berriz herriak ikusi du britainiarren ofentsiba berri bat besterik ez dela, eta halakotzat hartu beharrekoa; IRA-k beretik neurri batzuek hartu ditu horrelakoekin gerta litezkeen infiltra-zioak mozteko.

**A.P.— Tidey-ren bahiketaren bu-kaeran (2), mugazain bat eta Errepu-blikako soldatu bat hil zenituzten; on-dorioz Dublingo gobernuak zuek bo-rroka harmatua hegoaldeko ho-gei-ta-sei konterrietara zabaldu behar zenutela sujeritu zuen; ba al dago ho-rrelakorik?**

IRA.— Ez. Heriotz horiek ezin dira horrela interpretatu. Hor gertatu zen guretako talde bat inguratu zutela he-goaldeko soldatuek, su egin eta gureek erantzuterakoan hori gertatu zen, ak-zidente bat esate batera.

Gero, Dublinek nahi izan duena, ez bahiketa horren kontra ekin, ez IRA-ren kontra ere, zera baizik, Sinn Fein-i kolpe bat eman nahi izan dio; Sinn Fein gora dator iparraldean, eta Dublin ere horren beldurtzen hasi da...

Dublinek problemaren erroari ekin beharko lioke, britainiarren okupazio ilegal salatu beharko luke, sintomen aurka aritu beharrean.

**A.P.— Zer diozue Harrods-en ezar-ritako bonbaz?(3)**

IRA.— Oso inportante da guretzat britainiarren elkartasuna, eta inkesten arabera beretar soldatuak behin beti-koz hemendik ateratzearen alde ditugu; orain, horiek ze elementuak dituz-te gureaz pentsatzeko, gureaz kritiko izateko? Bat ere ez, eta gure ekintzez behintzat entzun egiten dituzte, ezta-baida sortzen dute, eta berenean eza-



rriz gero ba gehiago. Bestela ez dugu inoiz jendeari min egiteko asmorik izan, hori nahi bagenu ehundaka hil genitzake, baina ez, Harrods-en ber-tan 40 minututako aurrerapenez abi-satu genuen.

**A.P.— Irlandar zenbaiten ustetan Londres-en eta Britainian barrena abisatu-gabeko bomba kanpaina bat zuzen egon liteke...**

IRA.— Bai, guk ez dugu hori nola-nahi egingo, baina britainiar herriak ulertu behar duena zera da, guretzat hain frustrante gertatzen den odol-keta eta guzti gertatzen ari dela, ba guretar batzuek, irlandar batzuek, gehiago ezinik astindu nahi lituzkete britainiar-rak... Eta gero bestea, Harrods-eko zaurituei buruz, zenbat negar egin du-ten eta zelako hipokresiaz, gero he-men sufrimendu guztiaz ezer esaten ez duela...

**A.P.— Bonbarik gehiago jarriko du-ze Britainian?**

IRA.— Bai. Zailtasun lojistikoak gora-behera, Irlandan britainiar ter-rorismoak segitzen duen artean, guk bonbak jartzen segituko dugu.

Gerra ez da bukatu, eta ez da tre-guarik egongo, zatiketa gertatu zene-tik eta generazioz-generazio egon den bezalaxe. Armak utziko ditugunean, britainiarrak joanak izango dira eta Irlanda bat bakarra izango da. Eta he-rriak gobernatzan duenean, sozialis-moa iristen denean, orduan izango dugu Irlandan justiziazko bakea.



#### OHARRAK:

- (1) *Royal Ulster Constabulary*, Ir-landako errepresio-indarrik gogo-rrena agian.
- (2) Dirua lortzeko IRA-ren ekintza frustratua (Tidey-ren konpainiak ordaindu nahi zuteen, Thatcher-ek aldiz presioa egin zuen ez zezala ord-ain, eta lortu egin zuen).
- (3) Abenduan izandako bomba ekintza; almazen horietan zebiltzen batzuek zauriturik gertatu ziren.